

Egitura, prozesu eta nortasun soziala ekoizpen kulturaletan, Zuberoako Folk-antzerkiaren adibide baten harira

**Kepa Fdez. de Larrinoa
Faculté Pluridisciplinaire
Université de Pau et des Pays de l'Adour**

Saio honek Zuberoako folk-antzerkiaz dihardu, Pastoralaren deritzan antzekizuna antolatzeak dakartzan gora-behera soziokulturalak miatuz. Bertan zenbait analisi-esparru daude, haietako batzuk hauek direlarik: antropologia sinkronikoen eta diakronikoen arteko aldeak; folk-antzerkia eta bertako politika-erak eta politika-kerak; folk-antzerkiaren audientzia eta aktorego bereziaren beharra; folk-antzerkiak inguratzen duen harreman-sarearen barruan gatazkak sortzen dituen gaiak; eta errealitatearen definizio-gune agintariak.

This essay focuses on folk cultural performance in a Pyrenean Basque-speaking land called Zuberoa. Its author analyses several issues: the need of a diachronic look into cultural performance; politics of folk performance; the grounds for conflict and legitimacy among organisers; and making of authoritative statements in the public definition of cultural performance.

Sarrera

Zientzia Sozialetik datorren ikerlariari Pastoralaren barne-mundua izugarri aberatsa zaio, Pastoralaren produkzio sozio-kulturala historikoa da-eta. Historikoa dela azpimarratzean, arazo jakin eta garrantzizko batez jabe gaitezen dei egiten dut. Eta haxe da kontuan hartu behar dugun arazo edo egoera: Pastoralaren inguruko mundua historikoa dela erratean, Zuberoako folk-teatroa historia dokumentatuaren bilakaeran errotuta dagoela eta, beraz, segida identifikagarri bat dagokiola onartu ez ezik, historiaren gune eta une zehatzetan, jakin-garrietan, eta beraz, ezberdinetan gertatu eta eratzen dela argudiatzen dut.

Beste modu batez erranik, nahiz eta iraganaren luzea edo sakona eraginkorra izan, hemen indartu gura dena honako ideiarri datzekio: antzezten den mementuaren egoera eta barneko zein kanpoarekiko kontestuak eta gora-beherak oso kontuan hartzekoak dira, mementua izan dadin orainaldia edo izan dadin iraganaldia. Halako ikuspegi hartuz gero, berehala sumatzen dugu Pastoralaren erreferentzi puntuak ugari eta anbiguoak direla.

Aspaldiko literatura antropologikoak nahiz historikoak erakutsi dutenez, gizarte-agenteen gora-beherak konplexuak izan ohi dira, anitz faktore kultural eta aldagai soziologiko nahasten baitira prozesu sozialetan. Halakoxe konplexutasun sozio-kulturala begietsi ahal da Pastoralaren antzeppenentara hurbilduz gero. Hau da, Pastoral folk-antzerkia, morfologiaz ximple xamarra izan arren, edukieraz askotxo lodi da. Eta halaxe dela erakustea da txosten honen helburua.

Honako ezaugarria kontuan hartu behar dugu oso: Pastoral bat antolatu eta antzezteak sortaraziko zirkunstantzien joko biziki eraginkorra da bertako jendeen harremanetan eta elkarrekintza sozialetan. Datozen lerrootan, beraz, errealtate eta nortasun sozialen definizio-joko lodiaz jabetzeko dei bat dago¹. Errealtate eta nortasun sozialen definizio-joko beronek, bestalde, Pastoralaren inguruan eraikitzen –eta eraiki izan– den kosmos sinboliko-interpretatibora zein gizarte-esparru instrumentalera etortzea eskatzen digu, erran nahi baita, Pastoralaren historizitateaz eta jokari sozialen esperientziaz ari izango naizela txostenean zehar; ez, ordea, iraganaldikoez –hau da, jadanik pasatuez–, orainaldikoez baino.

Erran ahal da kulturaren soziologiak, historiaren soziologia eta antropologia politiko-legalak batzera jotzen duten arlo akademiko muga-gaitzean gainti mugituko naizela. Orduan, *esperientzia, egitura, prozesu eta izakera edo nortasun soziala* ditut aipatzeko hitzak. Atxakia: 1991. urtean Zuberoan antolatu eta antzeztu ziren bi Pastoral: Harizpe marexala eta Xalbador bertsolaria. Aldez aurretik uler beza irakurleak sarrera gisa eta laburki nabilela, beti koordinatu tesuingururatzaille eta ardatz gidatzaile zabalen (beraz, irekien eta eztabaidagarrien) bila.

Nortasun sozialen ikerketarantz: B. Malinowski-ren “bertako iharduera intentsiboa”-ren metodologia eta C. Lévi-Strauss-en bitako oposaketak

Pastoraletan bi talde nagusi, norma-lean elkarri oposatzaile, agertu ohi

1. *Joko lodia* espresakera erabiltzean, C. Geertz antropologo amerikarraren *deep play* nozioaren oihartzuna dakart.

dira: *turkoak* eta *kristauak*. Batak onak eta arrazoidunak, besteak gaiz-toak eta arrazoigabeak. Historiaren antropologian ere halakotsua behatu ahal dugu, zeren eta, abstrakzio handiegia egiteke, bi korrante orokor bereiz baitaitezke. Alde batetik, gizarte eta kulturen arteko antzak azpimarratzeko jokaera darakusten eskola akademikoak daude; hots, denboran eta espazioan zehar gizakien arteko alderdi komunak eta batasunak agertzen dituzten antropologo-talde finkatuak. Eta beste alde batetik, gizarteen eta kulturen arteko ezberdintasunak erakutsi nahi izan dituztenak daude. Bestela erranik, pentsamolde eta azterbide unibertsalistak eta partikularistak aurrez aurre daude antropologiaren historian, elkarren arteko tirabirak nabarmenak izan direlarik. Unibertsalistek turkoen errola jokatu dute batzuetan. Beste batzuetan partikularistek. Beraz, aldizka ari izan dira gaizto/on egitura delakoan.

Bestelako alternantziak gertatu dira antropologian, jakina, garaiko moden eta zirkuitu kulturalen (akademiaren produkzio/kontsumo-sareen) arabera. Adibide on bat kontinente honexetan dugu, Europako ekoizpen antropologikoaren hasieran hain zuzen ere. Britainia Handian, esate baterako, antolakuntza sozialaren ikerketak indartsu agertu dira, mende honen hastapenean hasita, batez ere B. Malinowski-ren eta A.R. Radcliffe-Brown-en funtzionalismo eta funtzionalismo estrukturalaren eskolen gidaritzapean, zeinaren bidez gizarte eta kultura bakoitzaren partikularitasunak klarki ispilatzen baitziren. Osterantzeko etsenplua kontinentean berean dugu: alegia, Belgikan jaiotako C. Lévi-Straussen idazlan oparia, estrukturalismoa izena erabiliz dakiguna, non giza kognizio edo gogoeta-prozesu unibertsalari

ematen zaion garrantzia azpimarratzen den.

Egon badaude bestelako ezberdintasunak edota oposaketak arestiko antropologia-azterbideon artean. Areagoko ezberdintasunak nondik datozen kokatzerakoan, datu etnografikoak eskola bakoitzak nola bildu dituen eta, baita, ikertze-tankerak bakoitzak nondik garatu dituen, ezauzgarri apartekoak ditugu. C. Lévi-Strauss azterlariari buruz idatzitako liburu batean, Edmund Leach (1970: 19) antropologoak modu honetara deskribatu du funtsezko ezberdintasuna:

There are many kinds of anthropological enquiry, but Malinowski style intensive fieldwork employing the vernacular, which is now the standard research technique employed by nearly all Anglo-American social anthropologists, is an entirely different procedure from the careful but uncomprehending description of manners and customs, based on the use of special informants and interpreters, which was the original source for most of the ethnographic observations on which Lévi-Strauss, like his Frazerian predecessors, has chosen to rely.

Honetaz, bi ikermolde: lehena, bertako iharduera luze, sakon intentsibo, buruz burukoa; eta bigarrena, egonaldi labur, hautatua, arartekoak direla medio suertatua. Hona agertzen ditudan iritziak eta datuak lehenbiziko teknika erabiliz osatu ditut.

Azkeneko eleok ikerbideez izan dira, datuak-ea-nola-jaso dihardute, eta B. Malinowski-k irekitako arloari eutsi diete. Eta hala izanik ere, 1991. urtean Zuberoako folk-antzerkiak bertako iharduera bildutako etnografiak C. Lévi-Strauss-en gogoeta antropologikoen oihartzun ozena zekarren.

Zuberoako folk-antzerkia eta azterketa estrukturalistaren hotsak

Euskal kulturaz aurkeztutako ikerlan batzuk korrante estrukturalistari jarraiki zaizkio. Hegoaldeko Euskal Herrian Joxemartin Apalategik (1987) kontu-zaharrez osatua adibidea da. Iparraldean, eta Zuberoako folk-antzerkiaz bereziki egindakoetan François Fourquet (1990) eta Txema Hornilla (1987) agertu dira. C. Lévi-Straussen jarraitzaile, beren begiradak eta ardurak ihauteriarra, neguko antzerkira zuzenduta.

Oso ximpleki ipinita, C. Lévi-Straussen antropologiak kognizioaz dihardu, giza gogoetat, pentsamendu-mekanismoa zertan oinarritzen den azaldu gura du-eta. Zehatzago, bitako oposaketan zehar osatutako argumetuetan gauzatzen dira leku guztietako, kultura guztietako errealitate sozialari buruzko gogoetak eta interpretazioak, abiatze-oposaketa Natura/Kultura delarik. Honetaz, kultura denetan giza buruaren prozesu kognitiboak hasierako oposaketa bat dauka, arestixean esandakoa, eta lehenbiziko oposaketa honetatik beraz, ideien elkartze eta transformazio paraleloen bidez hain zuzen ere, giza unibertsoak eta mundu sozialak kontzeptualizatzen dira.

Pastorala zer den miatzeko asmoz 1991. urtean Zuberoara joan zenak berehala susmatuko zituen erreferentzi esanguratsuak, eta bai bilduko zituela garrantzizko datuak hemendik eta handik. Era berean, estrukturalismo frantziarrak hedatutako interpretabidearen berri jakingo zuenak fite antzemanen zuen zuberotarren adierazpenen artean bitako oposaketen interpre-

tazio-eredua betetzen zuen jokaera sendoa, eta jokaera hauxe bera zertan zen kontatu behar dizuet oraingoan.

Bi Pastoral jokatu ziren Zuberoan 1991. urtean. Aspalditik ez zen halakorik agitzen, 1953. urtetik alegia². Osterantzeko berrikuntzak ere suertatu ziren. Lehendik, bi errejent (maisu edo zuzendari) berri estreinatu ziren; ordu-ra artean errejent ibilitakoak, adinduta zeudela edo, erretretan sartzen zirela zioten bertakoek adierazpen gisa. Bigarrenez, 1991.eko Pastoral-egileak edo idazleak ere estreinatzen ziren.

Orduko giro orokorraz oroitzen bagara, bi Pastoral hauen artean nolabait teko lehia mamitu zen, bi esparrutan errotu zena: alde batetik prestakuntzetan zehar, Pastoral bakoitzaren antolakuntzaren eta jendaurrera ekartzearen legitimitatearen edo zuzenbidetasunaren esparruan; eta beste alde batetik antzezkitzunik bukatu ondoren, Pastoral bakoitzaren benetakotasunaren esparruan. Hau da: (1) bi herriek bazeukatenetz beren Pastoralak antolatzeke eskubiderik; eta (2) antzezpenak ba ote zirenetz egiazko Pastoralak, egileek besteko zerbait osatua zutenetz eztabaidatu zen-eta.

Botatako epaiketa sozialek metafora eta metafora-transformazio eta elkartze bitxiak segitu zituzten, neurri handi batean Natura/Kultura bereizketatik zetorrena. Areago, bi Pastoralak urte berean aurrera eramateak bi herrien arteko mesfidantzak ekarri zituen, eta denbora joan denbora etorri honako oposaketen joko eta sekuentziak finkatzera jo zuen bai partaide zuzenen artean eta bai Zuberoako bizilagunen kopuru adierazgarri batean:

2. Pastoralen antzezkitzunen zerrendak kontsultatzeko, ikus Urkizu 1984, G. Hérelle 1907 eta Agergarai 1987.

	Pastorala	
Harizpe		Xalbador
	Herria	
Muskildi (Petarra/ordokia/lautada) (handia)	(Basaburua/mendia/bortúa)	Larraíñe (txipia)
	Heroiaren izakera	
militarra frantsesa		poeta euskalduna
	Antzezlaren ezaugarri artistikoak	
landua (modernoa)		herrikoa (tradizionala)
botz ikasiak		botz basak
gorputz-higimendu ikasiak	gorputz-higimendu basak	
profesionaltasuna		herrikoitasuna
esportabilitatea		barrutasuna
Kultur erreferentzia zabalak	Kultur erreferentzia	zuberotarrak
Zuberoatik kanpora	Zuberoaren barrura	
begira egina		begira egina
KULTURA		MENDIA

Kognizio-analisi estrukturalista bati bagarraizkio askotxo ondo sartu eta tinkatu ahal dugu delako paradigmaren urte hartako etnografia. Ordea, azterketa sinkroniko mota hau bazter uzten badugu instant batez, eta hurbilketa diakroniko bati bagatxezkio, barneburu-prozesuei begiratu barik gizarte-harremanen sareak, multzoak eta estrategiak bilatzeko asmoz, bestelako joko eta tirabira sozio-kulturalak aurkitzen ditugu. Honetaz, buru-oposaketen muga zehatzekin topo egin baino, intersekzio-espazio sozial zabalak darakuskigu.

Ekoizpen kulturala eta tokiko politika

Pastoralaren historiari so labur bat eginez gero, berehala ikusten da urte berean bi eta hiru Pastoral antolatzea praktika arrunta izan dela Zuberoan. Are gehiago, herri bat-berean bi Pastoral suertatu direla egun berean hortxe dago. Eta galdera sortzen zaigu: 1991.

urteko Pastoralen etnografiak eta bertako adierazpenek mesfidantzak eta arazoak azpimarratzera jotzen zuten; berdin suertatzen al zen XIX. mendearen bukaeran eta beronen hasierako Pastoraletan?

Saio honen hasieran aitortu bezala, erantzuna ez da erraza, Pastoralgintzan anitz elementu eta faktore elkarrekin ari dira-eta. Zientzia Sozialetan, biziaren sozialean lez, ez dugu erantzun xinplerik. Erran ahal dugu, haatik, kutsu politiko nabaria zeriela, antolatzailerik aldetik behinik behin, zeren eta, G. Hérelle-k eta P. Urkizu-k Pastoralari buruz idatzitako lanetan biltzen dutenez, Frantzia aldean garai hartan instituzionalizatuta zeuden gorrien eta zurien arteko bataila politikoez bultzatuta baitzebiltzan orduko Pastoral askotxo.

Garai hartako Pastoralen eta tokiko politikaren arteko harremanak ez daude sistematikoki ikertuta. Beraz, xehetasun handiaz ezer gutxi ekarri ahal dugu lerro hauetara. Hala ere, zenbait azterlarik ikertu dituzte direlako gorrien eta zurien arteko gora-beherak Frantziar estatuko beste alderdi geografiko eta kultural batzuetan. Baita ere, folkloreaken –edo tokiko ekoizpen kulturalen– eta tokiko politikaren arteko hartu-emanak orduko nekazari-gorriko herrietan ondo xamar daude ikertuta, Ipar Euskal Herriko gorako alderdietan bederen³.

Orduan, gai honexetaz Euskal Herriko kanpo –eta bestelako kontestuetan– egindako azterlanetara etortzea, argudio eta konklusio paraleloak egiteko, zilegi dela onartzen badugu, honako ondorena atera dezakegu: garai hartan Pastoral bana zuriek eta

gorriek bultzatzean, bertako, tokiko herriko elkarrekintza politikorako espazioak kreatu eta biziarazten zituzten. Espazio haiek ez ziren xoil-xoilik ideologia politikoaren esparruan iharduteko, hau da, ideia politikoak zabaltzeko edo propagandari eragiteko, politika praktikatzeko baizik. Berriz: ez politika handiaren –parlamentuen– ereduei jarraitzeko; bertako egunero-kotasunari eransten zaion politika bideratzeko baizik.

Pastoralak antolatzean bertako talde sozialek eta ekonomikoek beren parte beregisakoa hartzen dute, ekoizpen kulturalaren eta politikaren arteko-tasuna begibistara agertuz. Gaur eguneko etnografian halakoxea antzematen dugu, 1992. urteko pastoral-gintza adibide ederra dugularik.

1992. urtean Santa-Grazi herriak Pastoral bat plantatzen zuelako hotsa zabaldu, eta lanean jarri zen. Denbora pasatuxea, dantza zuberotarra pizteko asmoz duela zenbait urte osatutako Zuberoako Zohardia elkarteak beste Pastoral bat bideratu behar zuela urte berean mezutu, eta beharrean ihardun zuen. Bitako oposaketen jokia ez zen agertu kasu honetan maila kognitiboan, tokiko politikan baizik. Delako politikotasuna, paradoxikoki, ez zen agertu bi Pastoral haien artean bideraturiko lehiaren inguruan. Dakusagun.

Zuberoako Zohardia dantza-elkartea gauzatu eta urte batzuk geroago, zati-keta bat suertatu zen, nondik eta

Aitzindariak dantza-elkartea etorri baitzen. Bi elkarteok dantza-gertakizunen kontzepzio ezberdinak erakutsi dituzte, eta iharduera folk-kulturalak publikoki antolatu beharrean, instituzioek banatzen duten sostengu ekonomikoa biltzerakoan eragina edo ahalmen kontrastatuak dauzkate biek. Beraz, baten protagonismo soziala, bestearen ahulezia izaten da.

1992. urtean Zuberoako Zohardiak antolatu zuen Pastoral, orduan, modu honetara interpretatu zen Zuberoan: urte hartan Aitzindariak taldeak Euskal Herriko dantza-eguna antolatzen zuen Maulen; festa eta jai handia zela-eta, Aitzindariak dantza-elkarteak oso protagonismo indartsua hedatzen zuen Zuberoako ekoizpen kulturalen antolakuntzan; Zuberoako Zohardia elkarteak ezaugarri horretaz ondo jabeturik, beste folk-ekintza handi bat jendaurreratzea erabaki zuen, bere hegemonia eta irudi agintezkoa osorik ez galtzearen. Beraz, 1992. urteko Pastoralen arteko lehia politikoa garrantzitsua zen, mende-hasierako Pastoralena bezain garrantzitsua, nahiz eta orduko eta oraingo nortasun sozialak, politikoak eta ekonomikoak ezberdinak izan.

Egungo egitura, prozesu eta nortasun sozialak Zuberoako ekoizpen kulturaletan

Oraingo nortasun sozialak, politikoak eta ekonomikoak nolakoak diren jakin dezagun, berriz 1991. urteko

3. Ekoizpen kulturalaren politikotasuna (alegia, politikarako gaitasuna) nahiko eztabaidaturik dago, bai soziologian, bai filosofian eta bai antropologian. Adibide batzuk aipatzeagatik eman ditzagun honako ikerle eta idazlanak: gogoeta eta arrazoinamendu teorikoen bila dabilen egile-liburu inportante bat A. Cohen (1974) da; Frantzia aldeko mundu erruraleko tokiko politikaren eta folkloreaken edo herri-kulturaren arteko harremanen berri jakiteko, ikus M. Agulhon (1970) eta P. McPhee (1979); giro hiritarrean, bestalde, ospaturiko ihauterien kutsu, eragin eta ondorio politikoak erakusten dituen idazlana A. Cohen (1993) dugu; ekoizpen kultural posmodernoari darion politikotasuna P. Phelan-en (1993) liburuan ikus dezakegu.

Pastoraletara etorriko naiz, bertan sorturiko mesfidantzak eta gatazkak zertan ziren ikusi eta gero, gogoeta txiki bat egiteko. Lehenbizi, bi Pastoralen inguruko giroa kontatu dezadan.

Muskildiko Pastoralak amaitu eta jauziak eman ondoren, kanpoko tabernara abiatu da jende anitz. Hantxe larrineko gazte paketa bazen, beren artean herriko auzapeza, sujetaren anaia, eta beste asko. Muskildiko jendea ere barra-barra zegoen. Eta bi taldeak nahastu egin dira, elkarrizketa hasieran, eta kantuan segidan. Ni Muskildiko eta Larraineko gazte banarekin hizketan ari izan naiz. Egia erran, biek hitz egiten diote elkarri, zeren ni kanpoan gelditu naiz nolabaiteko audientzia bihurturik.

Zuberoan bi Pastoral aurten izaitia, eta nola gertatu den ukan dute mintzagai. Darraikionez, audientzia problema handia. Beste bat, eskubidea edo lehentasuna. Arrazoiak eman dizkiote elkarri, bakoitzak bere buruari eusteko. Ber urtean bi herrik Pastoral bedera ematea sobera dela biek konpartitzen dute. Eta baita ere, bietako batek gibel eman behar izan zuela, zeren azpimarratzen baitzuten gaur egunean ez dagoela Zuberoan ez aski indar organizailearen aldetik, eta ez behar aina-ko audientzia konsumizatzaile kultura-len aldetik. Bi Pastoral antolatzeak honakoa dakar: dirauen indar txikia eta ahula gehiago apurtzea. Puntu honetan akort zirelarik, Muskildik ala Larrainek, nork eman behar zuen gibel, zen auzia.

Muskildiarrek, bere eskubideari eusteko, honelaxe erraten zuen: Muskildiko xedea oso aitzinetik zen zabaldurik, urte bat aurrexetik, noiz gibel eman baitzuen Ikastolako Pastoralari bide emateko. Birritan, bi urte elkarren segidan, gibel

ematea sobera zela zioen Muskildiarrek.

Larrainekoak, aldiz, bere eskubideari atxekitzekotan honako arrazoiak botatzen zituen: (1) 38 urte joan dira Larrainen azken Pastoral antolatu zenez geroztik, eta Muskildik berriki emana zuen beste Pastoral bat, 6 urte lehenago, 1985. urtean hain zuten ere; (2) zaila da Pastoral bat Larrainen plantatzea, zeren eta, alde batetik, jende gutxi bizi baita herrian gaur egunean, lana kanpoan dago-eta, eta beste alde batetik, ahula ahulari, urteetan zehar herria politikoki erdibanatuta egon da-eta. Beraz, Larraindarrek zioen, zuela sei urte eman nahi izan zuten Pastoral bat, baina ezin zuten, herritarren artean ados ez ziren etorri-eta. Orduantxe zuten aukera ederra, herri osoa akort izanik. Aukera iragaten utziz gero, auskalo noiz letorkeen beste bat, behin ikusirik gero eta jende gutxiago bizi zela herrian.

Beraz, modu honetara laburtzen zuen larraindarrek bere jarrera: (1) aurten ez badugu Pastoral plantatzen, sekulan ez dugu plantatuko, ahul gabiltza, jenderik ez da egongo herrian eta; (2) Muskildi indartsu dabil, berriki eman ditu Pastoral eta Maskarada; ondorioz, Muskildiri dagokio itzarotea. Muskildiarrek, ordea, modu honetara laburtzen zuen bere postura: guk behin itxoin dugu, ez dagokigu guri itxoitea, are gutxiago noiz eta zuek guk baino berandago abiatu baituzue zuek Pastoralak.⁴

Iritzi berdintsuak astindu ziren 1992. urtean Santa-Grazi herriko Pastoralak eta Zuberoako Zohardia elkarteko Pastoralak zirela-eta: Santa-Grazi herri ahula zela, eta Zohardiako Pastoralak kalte ekonomiko eta morala ekarriko

4. Nire ohar-liburutik hautatutako pasartea.

ote zion beldur ikaragarria ziren. Antza denez, lehia baino, elkartasuna eskatzen du gaurko Pastoralak.

Hemen amaitu nahi nituzke lerrook. Hona esandakoari darraikionez behintzat, oraintsu arteko Pastoralek herrien arteko eta herri barruko talde sozial, ekonomiko eta politikoen arteko lehian eta oposaketarako grinan tankeratutako espazio sozialak eta kulturalak zizelatu zituzten.

Dударik gabe, Pastoralak honelako- xe espazio bat gorpuztu du Zuberoan. Eta dudarik gabe, Pastoralek, eta baita Maskaradek ere, eragin handia izan dute Zuberoako herri bakoitzaren nortasun sozial, politiko eta ekonomikoa moldatzerakoan. Beraz, nahiz eta Zuberoako folk-antzerkiaren gai hone- taz lan edo gogoeta sistematiko gutxi edo ezer ez egon, teatro-modu honen historia txikiari eginiko lehenengo begiradatxoak berehalaxe diosku ezen hein handian hango krea- zio kulturala eta nortasun sozialak, politikoak eta ekonomikoak oposaketa-jokoari jarraiki garatu direla oraintsu arte.

Alabaina, gaurko testigantzek diote- nez, herrien arteko oposaketa-jokoa auzian dago, gero eta gehiago nabari- tzen baita barne-kompetentziak, lehe- nengo modu zaharrera ulertuta, krea- zio kulturala eta izakera soziala in- darrarazi baino, agortu egiten dituztela.

Honetaz, Pastoralak historiak edo pertsonaia historiko zein fikziozkoak antze- tzen ditu. Pastoralen antolakun- tzak, bere aldetik, nortasun sozial, ko- lektibo ezberdinen arteko jokoa eta be- reiztasunak dramatizatzen ditu. Zentzu honetan, baldin-eta egungo Pastoral- gintza ikuspegi soziologiko zabal bate-

tik behatzen badugu, erreferentzi puntu sozio-politiko berriagoen eragina be- rehala susmatzen dugu: alde batetik, badago gertaera demografikoaren era- gin nabarmen bat; eta beste alde bate- tik, badago, ideologia eta nortasun na- zionalista edo euskaltzale baten ga- rrantzia. Bien –alegia, demografiaren eta azken aldiko ezaugarri sozio-politi- koen– garrantzia oso kontuan hartze- koa da gaur eguneko Pastoralen antolakuntzak dramatizatzen dituen izakerak eta nortasunak mugatu eta analizatzeko.

Antza denez, lehen- go antolabideek eta kontestualizazioek herriaren edo oso bertako talde sozialaren prota- gonismoa indartzera jo ohi zuten: hots, barnealdea. Oraingoetan, ordea, badi- rudi bailarari berari, ibarrari, Zuberoa osoari datorkiola protagonismoa. On- dorioz, Pastoralak bideratzen eta ospatzen dituen nortasunetan jauzi nabaria gertatu dela behatzen dugu: oso tokian tokiko izakera eraikitze- tik eta legitimatze- tik ibar osoa identifika- tzen duen beste izakera bat mugatzera eta finkatzera dabilen jauzia, hain zu- zen ere. Bestela erranik, gaurko Pas- toralgintzak bailara osoa errepre- sentatzera salto egin du. Edo giro hori begiesten da, bederen.

Bukatzeko, erran dezadan azke- neko sail honetan gatazkaz eta desa- kordioez ihardun dudala, mintzagaitza den gai bat biltzeko, nortasun sozia- len eraikuntzarena. Azken boladan sumatu ahal diren nortasun-jokoak eta izakera-sareak ez daude zeharo finka- tuta, egintzan ari dira. Egintza honetan bi esparru bereizi behar ditugu: alde batetik, barnealdera zuzendutako giroak inguratzen dituen harremanak eta errealitate-definizioak, neurri handi

batean herrien eta talde txikien arteko lehiak eta kompetentziak bultzatzen dituen, eta era berean, mundu kognitibo-sinboliko aparteko bat sustraitzen duena.

Beste alde batetik, kanpoarekiko munduak dakarren izakera erakusten duen harreman-arloa dago. Eta hemen bi definizio-gune eraginkor ikus ditzakegu, zein ote den besteen aitzinetik hegemoniko bihurtzen, lanean ari direnak. Hauexek dira biak.

Bateko, frantziar kultura dugu, zeinak Pastoralaren mundua Pirinioetako folkloretzat definitzen duen. Hein handian, nazioaren hegoaren baserriarren iharduera bitxia, exotikoa, sinpatikoa dela Pastoral ulertzen du errealitate sozialen eraikuntzan edo produkzioan eraginkor den gune honen. Besteko, euskal kultura berria dugu, zeinak Pastoral euskal literaturatzat edo antzerki zahartzat jotzen duen.

Aipatutako bi kasuotan gauza bera gertatzen da: definizioa definizio-gune kanpotarretatik dator; bata iparraldetik,

bestea hegoaldetik. Lehenbiziko kasuan mutur batera gatzoz: definizioak nolabaiteko zentzu peioratiboa dakar, folklore hitzak hiritarra –hots, progresua– ez dena izendatzen baitu. Hau dela-eta, oro har folklore hitzari atzerakoi-kutsua erantsi izan zaio. Bigarren kasuan beste mutur batera heltzen gara: definizioak kutsu kulturala dakarkio Pastoralari. Gauza segurua dago: ez bata ez besteak ez diote bertakoen definizioa zein den.

Saiotxo honi azkeneko puntua ezartzerakoan behar diot irakurleari gogorarazi ezen txosten honetan zehar analisi-esparru ezberdinak agertu ditudala. Haietako bost hauexek ditugu: lehena, antropologia sinkronikoen eta diakronikoen arteko aldeak; bigarrena, folk-antzerkia eta bertako politika-erak eta politika-kerak; hirugarrena, folk-antzerkiaren audientzia eta aktore bereziaren beharra; laugarrena, folk-antzerkiak inguratzen duen harreman-sarearen barruan gatazkak sortzen dituen gaiak, eta taldeen edo herrien arteko arazok bideratzeko estrategiak; eta bost, errealitate sozio-kulturalen definizio-guneen auzia.

Bibliografia

- Agergarai, A., (1987): "Pastorales de 1951 à 1980", *La Pastorale: théâtre populaire basque en Soule*, Lauburu, Baiona.
- Agulhon, A., (1970): *La République au Village*, Plon, Paris.
- Apalategi, J. M., (1987): *Introducción a la Historia Oral*, Anthropos, Bartzelona.
- Cohen, A., (1974): *Two Dimensional Man: An Essay on the Anthropology of Power and Symbolism in Complex Societies*, University of California Press.
- , (1993): *Masquerade Politics: Explorations in the Structure of Urban Cultural Movements*, Berg, Oxford.
- Fourquet, F., (1990): *La Mascarade d'Ordíarp*, Bulletin du Musée Basque, 129, Baiona.
- Geertz, C., (1973): "Deep Play: Notes on a Balinese Cockfight", *The Interpretation of Culture*, Basic Books, New York.
- Hérelle, G., (1907): "Les Représentations de Pastorales Basques", *RIEV*, 3 zebk., Maiatza.
- Hornilla, T., (1987): *El carnaval vasco*, Txertoa.

Leach, E., (1970): *Lévi-Strauss*, Fontana, Glasgow.

Mcphee, P., 1979: "Popular Culture, Symbolism and Rural Radicalism in Nineteenth-Century France".

Phelan, P., (1993): *Unmarked: The Politics of Performance*, Routledge, Londres.

Urkizu, P., (1984): *Euskal Antzerkia*, Euskadiko Antzerti Zerbitzua, Eusko Jaurlaritza.